

IZURRIETA

Iñaki Aretxabaleta

Lezama, 13 urte

Egun bat besterik ez zait gelditzen. Egun mixe-
rable bat! Eta dena Creusler doktorea deritzon
nazkante baten erruagatik!

Barkatu, oraindik ez dut nire burua aurkeztu.
Ni, Piranoid Saldichevid, Argi Gorena sektaren
burua naiz eta gartzelan nago. Ziuraski, orain ida-
tziko ditudan lerroak, nire bizitzako azkenak izan-
go dira, baina, hala eta guztiz ere, idatzi egingo
ditut. Dena egun hartan hasi zen:

Jessica Peterson, Chicagoko Unibertsitateko
ikaslea, etxerako bidean zen erosketa batzuk egin
ondoren, bueltan itzultzeko asmoz. Kale estu baten
sartzean, usain nardagarri bezain ezatsegina naba-
ritu zuen, ustel kiratsa. Euli ugari ikusi zituen ingu-
ruan hegaka. Aurrera-pauso bat eman, eta zaka-
rrontzi baten atzean ezkutaturik zegoen haragi
piloa nabaritu zuen Jessicak. Autoren batek zapal-
duriko zakur ibiltariren bat zelakoan, ez zion
garrantzi gehiegirik eman. Gutxi iraungo zion,
ordea, lasaitasun hark. Ibiltzen jarraitu zuen, odol
eta heste putzua begibistatik kendu gabe. Hala ere,
atzera begira zebilelarik zerbaitekin oztopatu eta
erori egin zen. Begiak zabaltzerakoan, deskonpo-
saturiko gizaki burua izan zen ikusi zuen lehen
gauza. Begi bat falta zitzaion eta bestea zintzilika-
turik zeukan. Izuaren izuz saltoa emanda lurretik

altxatu eta hies egiten hasi zen. Bidean, esku batekin oztopatuta erori zela konturatu zen.

Etxera heltzean egin zuen lehen gauza, poliziari hots egitea izan zen. Hauek, istripuaren lekura heltzean, gorpua bertan mugitu gabe uztea pentsatu zuten, zeren eta autopsia egiteko ospitale batera eramanez gero, hainbat arrastro eta aztarna galduko ziratekeen bidean. Lehenbailehen aztertu behar zuten gorpua, bestela beroak, guztiz deskonposatuko zuen. Amerikar poliziako buru zen Ricard Harrison jaunak, forensea eraman zuen hilketaren tokira heriotzaren arrazoia argizezan. Okela multzo hura ikustean, hauxe esan zion polizi-buruari:

– Hau al da?

– Bai, hauxe da.

– Ez du oso itxura onik. Beroaren ondorioz hainbat gorputz-atal alferrik galdurik ditu edo euli eta arratoiek janda. Egoera honen aurrean, oso zaila izango da koitadu honen heriotzaren zergatia asmatzea.

– Tirokatua izan da?

– Ez, ez du bala arrastorik.

– Itoa?

– Ezta ere, saman ez du markarik, eta birrikak ez daude handiturik edo puzturik kasu hauetan gertatzen den bezala. Baina baliteke pozoindua izatea.

Uff... zortea izan dugu, urdaila oraindik osorik dago. Bisturiarekin zabaldu eta... kakazaharra! Ez du pozoin arrastorik.

– Eta buruan kolpea emanda hil bada? –itaundu zion temati Richardek.

– Ezinezkoa, buruhezurra ukitu gabe dago.
–Erantzun zion hain jakinmintsu zebilen Richardi.

– Labankadarik jaso al du?

– Ez, gorputz-organoek ez dute ebakidura seinalerik. Hortaz, eta ikusitako-arekin, ondorio bakar bat atera dezakegu. Diru guztia aldean darama eta ez dirudi norbaitek eraso duenik. Esango nuke arrazoi naturalengatik hil dela gizon hau. Hori bai, zein arrazoigatik ez dakit. Hori jakiteko laborategira eraman beharko nuke gorpua.

Horixe egin zuen, baina laborategian ere ezin izan zuen ezer argitu. Hildakoa identifikatu eta izena eta helbidea jakin ondoren, Samuel Thompson zirujau eta forenseak, hildakoaren familiari berri txarra eta doluminak eman zizkion.

Misterioa izan zen heriotz hura, baita hurrengo bi asteetan izan ziren beste 2000 heriotzak ere. Benetako heriotz olatua izan zen hura. Chicagon hasitako heriotzak Amerika guztian zabaltzen hasi ziren. Jendea ziur zegoen hildako guzti haien artean erlazioren batek egon behar zuela eta beraien begien aurrean ikusten zuten nola hiltzen zen senitartekoren bat, nola zen jakin gabe.

Arazo larri honen aurrean, Bill Clinton, EEBBetako Presidenteak bideratzen zuen Gobernuak, hurrengo erabaki hau hartu zuen: Heriotz misterioitsu horien arrazoia eta konponbidea aurkitzen zuenari diru sari bat emango zitzaion, 1000000\$ hain zuzen ere. Berria, komunikabide guztietan zabaldu zen eta honi esker hasi ziren hainbat pertsona, batez ere zientzilariak, hilketak aztertzen.

Zientzilari horietako bat, Kaliforniako Zientzi Naturaletako Unibertsitateko (K.Z.N.U.) Brüda Van Shegen zen, eta bere laguntzaile zen Creusler doktorearekin ikerketak egiteari ekin zion.

Brüdak emaztea eta semea zituen. Semea beti ibiltzen zitzaion amari galdezka ea non zegoen bere aita eta ea zergatik ez zegoen berarekin jolasean. Amak beti gauza bera erantzuten zion, laborategian zegoela beraiei jaten emateko dirua lortzen, eta ezin zuela berarekin jolastu... Joseph, semea, orduan goibel jarri eta bere logelara joaten zen gehienetan. Brüda etxera oso berandu heltzen zen laborategitik eta egunsentia baino lehenago itzultzen zen lanera. Halan da ze, praktikoki ez zuen familiarekin egoteko astirik. Behin baten, hilketa misteriotsuen kasua aztertzetik zetorrela, emaztea itzarturik bera itxoiten aurkitu zuen etxean. Atea zabaldu eta barrura sartzerakoan honela mintzo zitzaion emaztea:

– Horrela ezin dugu segi. Laborategian, etxean baino denbora gehiago ematen duzu. Josephek ere zure hutsunea asko nabaritzen du eta zutaz galdezka hasten zait. Noiz arte jarraitu behar dugu horrela?

– Maitea, –Esan zion apur bat lasaitzeko asmoz.
–Orain lan garrantzitsua dut esku artean, aberats egingo gaituen proiektu bat.

– Dirua! Dirua besterik ez duzu hautsez beteriko buru horretan. Eta zure familia zer? Bazter baten uzten gaituzu!

– Baina nik...zuengatik egiten dut lan eta lan...

– Zurekin alferrik da. Banoa ohera baina zu gabe. Eta non egingo dut nik lo?

– Zoaz laborategira. Han nirekin baino gustorago egongo zara eta! –Erantzun zion haserre emazteak. Eta halaxe egin zuen. Hurrengo gauean, lanetik etxera itzultzerakoan, ate joka ibili zen bost minutu baino gehiagotan, baina ez zuen inork erantzuten. Momentu hartan, giltzak atera eta atea zabaldu zuen. Logelara joan eta han emaztea ohe barruan etzanda ikusi zuen. Iratzarten saiatu zen baina bere emazteak, Lidiak, ez zien Brüdak emandako kolpeei erantzuten. Ez zen mugitzen. Hura izan zen bere emazte kuttuna hilda zegoela konturatu zen unea. Korrika, bere semearen gelara heldu zen arduraz, baina amaren zorte berbera izan zuen hark ere. Ohe gainean geldi-geldi zegoen zerraldo. Brüda doktorea malenkonia sakon baten sartu zen. Negarrez hasi zen semea besarkatuz eta Josephen burua bere bularraren ondo-ondoan estutuz. Barruan ezintasun handia sentitzen zuen, baina, hala ere, indarrak atera zituen poliziari eta anbulantziari badaezbada deitzeko.

Brüdak bere burua zigortzen zuen denbora gehiago beraiekin ez emateagatik, eta laborategian egindako aurkikuntza eta lan guztiak, pikutara bidaltzea erabaki zuen. Iritzi hori laster aldatu zuen, poliziak, emaztea eta semea nola hil ziren esan zionean, zeren bera ikertzen ari zen heriotz arraro horietakoetan parte hartzera pasatu baitziren. Berehala hasi zen berriz lanean, baina gogo eta kemen haundiagoz.

Ez zuen ulertzen nola hil litekeen norbait heriotzaren arrastorik utzi gabe. Baina egun pozgarri baten, bere zortea aldatu egingo zen. Gorpu batzuen zelulak aztertzen zebilela, honen barrutik ateratzen ziren atomo baten tamainuko bakterio batzuk ikusi zituen. Milaka zeuden eta gainera biderkatu egiten ziren. Mikroskopia indartsuago baten bidez, hobeto ikusi ahal izan zituen 200.000 aldiz handiagotuta, eta mugimendu azkarren bidez mugitzen zirela konturatu zen. Arineketan bere laguntzaile zen Creusler doktorea deitu zuen, eta honek Brüda doktorearen deiari kasu eginez, ahal izan zuenik eta azkarren bideratu zen laborategirantz. Laborategia, lehen aipatu bezala, Kaliforniako Zientzi Naturaletako Unibertsitatean aurkitzen zen, eta munduko teknologiarik aurreratuenarekin eginda zegoen. Sartzerakoan edozein zur eta lur uzteko modukoa. Gauza harrigarriak beterik zegoen, jendeak ametsetan ere irudikatuko ez lituzkeen makina eta tresnez betea:

Forma eta itxura guztietako saio-hodiak, kolore bizi eta ikusgarriez beteriko ontzi liluragarriak, ordenagailu izugarriak, botanika eta biologiako liburuz beteriko apalategiak... Ikusgarria benetan!

Laborategia bezain bitxia zen Brüda Van Shegen doktorea. Baxua zen eta baita burusoila ere, baina buruaren bazterretan geratzen zitzaion ile apurra-ekin, beste alderantz orrazturik, defektu kapilare hura disimulatzen saiatzen zen. Agian gehiegi pentsatzeagatik jausten zitzaion ilea. Batek jakin! Guzti horretaz gain betaurrekoak zeramatzan jan-

tzita. Berde-botila koloreko begiak asko nabarmentzen zitzaizkion eta argi izpiekin diz-diz egiten zizkien gauean katuei gertatzen zaien legez. Sudurmotza zen eta horrek itxura barregarria ematen zion bere aurpegiari. Bata zuri eta luzea zera-man jantzita, praka grisak eta zapata marroiak jaus-ten zitzaizkion bataren azpitik.

Brüda itzel poztu zen Creüsler doktorea ikustean, eta arineketan berak zeraman bezalako maskara jartzeko esan zion. Ondoren, mikroskopiotik begiratzeko eskatu zion. Honek, bere esana txintxo-txintxo bete zuen eta aho bete hortz gelditu zen ikusi zuenarekin. Petrifikaturik bezala gelditu zen. Egin zuen lehen gauza, ikusi zuena zer zen galdetzea izan zen, eta honela erantzun zion Brüdak:

- Gure ikerketen emaitza.
- Nola? -Galdetu zuen berriro Creuslerrek.
- Bai! Badakit zerk eragiten dituen heriotz misteriotsuok.
- Ikusi dudana ikusi ondoren neuk ere bai. Harrigarria da benetan bakterio horien aurkikuntza. Ikustekoa izan da nola jan duten zelula!
- Bai, bakterio horiek dira heriotz guzti haien eragile eta nire familia gabe gelditzearen errudun.
- Kutsakorrak al dira bakterioak?
- Bai, beste edozein gaixotasun baino gehiago gainera. Airean milaka bakterio daude eta horregatik eskatu dizut maskara hau jartzeko. Arnasketa bidez eta kromosomen bidez transmititzen da organismoan sartuz, beraz, heredagarria da.

Gainera hain txikia izanik azal poroetatik ere sartu daiteke.

– Biderkatu egiten dira, ezta?

– Bai, birusak bezala, baina azkarrago eta gehiago. Pertsona bati bakteria bakarra sartzen bazaio, hortik minutu gutxitara, milaka milioi izango ditu. Zelula guztiak jandakoan, hil egingo da. Guzti hau oso denbora laburrean gertatzen da.

Hau esanda, Creusler doktoreak, zera galdetu zion, ea bera hainbeste denboran bakterioekin batera egonda kutsaturik egon ahal zitekeen. Brüda ezetz erantzun zion ziurtasun osoz, baina esaldia bukatzeko astia eman gabe estulka hasi zen. Lurrera erori eta Creusler joan zitzaion laguntzeko asmoz, baina jada ezin zuen ezer egin hura laguntzeko.

Hurrengo egunean eta asko pentsatu ondoren, Creusler biologoak, zera erabaki zuen: ikerketarekin jarraitzea, Brüda doktoreak hala nahiko zuela pentsatuz. Beraz, berriz ekin zion lanari. Noski, hori bai, jantzi eta maskara berezi batzuekin, bera ere ez kutsatzeko neurri bezala. Lorik egin gabe, gau eta egun osoak eman zituen ikertzen. Eta aste batzuk igaro ondoren bakterioentzako sendagaia aurkitu zuen. Txerto baten bidez beste zelula batzuk sartzen dira gorputzean. Hauek, bakteria gaiztoak, Creusler doktoreak “Ninfozefalopodo Unizelular” izena eman zienak jaten ditu. Ondoren, konposatu kimiko bat sortzen da eta suntsitu egiten dira gorputzean kalterik sortu gabe.

Creuslerrek, substantzia horretako litro pila han-

dia ekoiztu zuen eta jendeari banatu zien gaixoa sendatzeko. Baina ez zen nahikoa izan. Airea guztiz kutsaturik zegoen. Hegazkin fumigatzaileen bidez ere saiatu ziren arazo hura konpontzen, baina alferrik. Bakterioak Amerika osoan zehar zabaldu ziren eta horrela jarraituz gero mundu osoan zehar zabalduko ziren.

Itsaso eta ozeano handi batek banatzen zituen kontinenteak, baina nahikoa zen kutsaturiko pertsona bakar bat beste kontinente batera heltzea kontinente horretan ere izurritea egoteko. Arazo honen aurrean, EEBB-etako Gobernuak koarentena izendatu zuen. Egun hartatik inor ezin zen Ameriketatik irten.

Creusler doktoreak pentsatzen jarraitu zuen konponbidearen bila, eta halabo momentu batean, bonbila piztu zitzaion, izurriteari aurre egiteko era posiblea aurkituz. Hasteko, kutsatu gabe zeuden pertsonen artean, maskarak eta soineko bereziak banatu zituzten. Ondoren, birusaren sorlekua zein izan zen aztertu behar zuen. Creusler doktoreak kontaktu garrantzitsuak zituen EEBB -osoan eta sekta arriskutsu baten berri izan zuen, Argi-Gorena izenekoa.

Ni, bertako apaiz-gorena nintzen. Burua, beste era baten esanda. Creuslerri susmagarri iruditzen zitzaion sekta hau eta bertan infiltratzea erabaki zuen zerri hark. Orduantze hasi ziren arazo guztiak. Egunero eguerdian antolatzen nituen mezak gure tenplu sakratuan. Gure jainko "Uluk" gores-ten genuen han eta gure asmoak adierazten geniz-

kien diszipuluei. Hau da, nik sorturiko bakterioen bidez, mundu osoko gizaki edo elementu delakoak desagertarazi eta gutarrak munduan jaun eta jabe bihurtuko ginela esaten nien.

Hau irakurtzen duen edonork galdera bat izango du buruan jiraka eta bueltaka. Zelan ez gara gu ere kutsatzen? Bada, irakurle horri zera erantzungo nioke, nik asmatuiko bakterioek ezin gaituzte kutsatu antidoto bat dugulako baina azken hau Creusler doktoreak asmatuikoaren parean, askoz eraginkor eta ahaltsuagoa da.

Creuslerrek, horren berri izan zuen eta noski, gutarra zela pentsatuz, hari ere eman genion antidoto apur bat. Honek gure sektatik ihes egin eta laborategian isurkin hura aztertzen ziharduen. Guri, bitartean, ideia bakar bat zebilkigun buruan bueltaka. Munduan bakarrak izatea. Erljio, hizkuntz eta arraza bakarra egotea. Eta horrela arrazakeriarik gabeko mundua sortzea, aberats eta txirorik gabekoa, botere eta marginazio bako mundu bat. Baina asko falta zitzaigun hori lortzeko. Creusler doktoreak antidoto kantitate handiak ekoiztu zituen lehen egin bezala. Nik ordurako banekien nor zen benetan Creusler doktorea. Berari buruzko informazioa lortu nuen eta baita bere bizilekua zein zen jakitea ere. Hara joan eta bera etxean ez zegoela frogatu ostean, goitik behe-ra miatu nuen. Laborategiaren helbidea aurkitu nuen eta baita gorde ere. Gero tenplura itzuli nintzen otoitz egitera.

Hurrengo egunean laborategira joan nintzen

hura han ez zegoela. Antidotoari buruzko informazioa libretatxo batean zuen, eta nik hura erre egin nuen. Hori egin nuenerako, Creusler doktoreak antidotoa Amerika osoan zehar zabaldu zuen eta bakterio bakar bat ere ez gelditzeaz arduratu zen. Beraz alferrikakoak izan ziren nire lan guztiak. Creusler doktoreak, antidoto guztia agortu zuen egun hartan, eta ezin izango zuen gehiago sortu. Polizia jadanik ohartuta zegoen eta atxilotu egin ninduten. Ni eta tenpluan zeunden gainontzekoak. Horrelaxe heldu naiz hona.

Ordu batzuk besterik ez zaizkit geratzen bizitzaz gozatzeko. Berehala aulki elektrikoan frijituko naute. Baina hau ez da horrela geldituko mendekatuko naiz!

Eskerrak oraindik bakterio batzuk geratzen zaizkidala, je, je...